

Irakurzaletasuna sustatzeko diru laguntzak jaso dituzte bertako zazpi udalerrik

Ajangiz, Bermeo, Gernika-Lumo, Busturia, Mundaka, Muxika eta Forua izango dira onuradunak.

ERREDAKZIOA

Eusko Jaurlaritzaren Kultura, Gazteria eta Kirol saileko arduradunek iragan astean jakitera eman dutenez, Busturialdeko zazpi udalerrik jasoko dituzte aurten haurren eta gazteen artean irakurzaletasuna sustatzeko eta Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen baitako liburutegi-zerbitzuen erabilera bultzatzeko diru laguntza bereziak.

Hain zuzen ere, Ajangiz, Bermeo, Busturia, Forua, Gernika-Lumo, Mundaka eta Muxika dira laguntzak jasoko dituzten udalerriak.

Bermeok eta Gernikak kopururik handienak

Laguntzak jasoko dituzten eskualdeko udalerrien artean Bermeo eta Gernika-Lumo dira diru kopururik handiena eskuratuko dituztenak. Udal horietako bakoitzak irakurzaletasuna sustatzeko 1.787 euro jasoko ditu 2009an.

Ajangizek, ostera, 595,70 euro eskuratuko ditu aipatu zeregin horretarako. Busturiak, Mundakak eta Muxikak, euren aldetik, 893,50 euro jaso dituzte. Foruak, bere aldetik, Joan Mari Torrealdai kultur etxearen bitartez herritar gazteen artean irakurzaletasuna bultzatzeko 714,80 euro hartuko ditu aurten Eusko Jaurlaritzaren Kultura, Gazteria eta Kirol sailetik.

Laguntzak

Ondokoak dira aurten udalerrri onuradunak.

Ajangiz. 595,70 euro.

Bermeo. 1.787 euro.

Busturia. 898,50 euro.

Forua. 714,80 euro.

Gernika-Lumo. 1.787 euro.

Mundaka. 893,50 euro.

Muxika. 898,50 euro.